ESTATUTUAK ESTATUTOS

# ARRATIAKO

# UDALEN

# MANKOMUNITATEA

**BAO. 94 zk. 2003 maiatzak 20.**

# AURKIBIDEA


**I. KAPITULUA**

***XEDAPEN OROKORRAK***

1. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEAREN ERAKETA

II. KAPITULUA

*IZENDAPENA, HELBIDEA, XEDEAK ETA NORTASUNA*

**2. ARTIKULUA.- IZENDAPENA, XEDEA, LURRALDE ESPARRUA ETA KORPORAZIOAREN ARMARRIA**

**3. ARTIKULUA.- XEDEA, HELBURUAK, ESKUMENAK ETA KUDEAKETA MODUA**

4. ARTIKULUA.- NORTASUN JURIDIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN AHALGOAK

III. KAPITULUA

*GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK*

**5. ARTIKULUA.- GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK**

**6. ARTIKULUA.- BATZAR OROKORRA**

**7. ARTIKULUA.- OSOKO BILKURA**

**8. ARTIKULUA.- LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEA. HAUTESPENA, ORDEZKAPENA ETA KARGUGABETZEA**

**9. ARTIKULUA.- GOBERNU BATZARRA**

**10. ARTIKULUA.- IDAZKARI-KONTU HARTZAILEA, DIRUZAINA ETA GERENTEA.**

**11. ARTIKULUA.- ORGANOEN BERRITZEA**

IV. KAPITULUA

*MANKOMUNITATEKO ORGANOEN EZKURAN-TZAK.*

**12. ARTIKULUA.- BATZAR OROKORRA**

**13. ARTIKULUA.- OSOKO BILKURA**

**14. ARTIKULUA.- GOBERNU BATZARRA**

**15. ARTIKULUA.- LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEA**

**16. ARTIKULUA.- IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA, DIRUZAINA ETA GERENTEA.**

V. KAPITULUA

*MANKOMUNITATEKO ORGANO KOLEGIATUEN FUNTZIONAMENDUA.*

**17. ARTIKULUA.- BATZAR OROKORRA**

**18. ARTIKULUA.- OSOKO BILKURA**


# INDICE


**CAPITULO I**

***DISPOSICIONES GENERALES***

ARTICULO 1º.- CONSTITUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD

CAPITULO II

*DENOMINACIÓN, DOMICILIO, FINES Y PERSONALIDAD*

**ARTICULO 2º.- DENOMINACIÓN, SEDE, AMBITO TERRITORIAL Y ESCUDO CORPORATIVO**

**ARTICULO 3º .- OBJETO, FINES, COMPETENCIAS Y FORMA DE GESTION**

**ARTICULO 4º.- PERSONALIDAD JURIDICA Y POTESTADES ADMINISTRATIVAS**

CAPITULO III

*DE LOS ORGANOS DE GOBIERNO Y DE ADMINISTRACION*

**ARTICULO 5º.- ORGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACION**

**ARTICULO 6.- LA ASAMBLEA GENERAL**

**ARTICULO 7º.- LA JUNTA PLENARIA**

**ARTICULO 8º.- DEL PRESIDENTE Y DEL VICEPRESIDENTE, ELECCIÓN, SUSTITUCIÓN Y DESTITUCIÓN**

**ARTICULO 9º.- LA JUNTA DE GOBIERNO**

**ARTICULO 10º.- DEL SECRETARIO-INTERVENTOR, DEL TESORERO Y DEL GERENTE**

**ARTICULO 11º.- RENOVACIÓN DE LOS ORGANOS**

CAPITULO IV

*ATRIBUCIONES DE LOS ORGANOS DE LA MANCOMUNIDAD.*

**ARTICULO 12º.- DE LA ASAMBLEA GENERAL**

**ARTICULO 13º.- DE LA JUNTA PLENARIA**

**ARTICULO 14º.- DE LA JUNTA DE GOBIERNO**

**ARTICULO 15º.- DEL PRESIDENTE Y DEL VICEPRESIDENTE**

**ARTICULO 16º.- DEL SECRETARIO-INTERVENTOR, DEL TESORERO Y DEL GERENTE.**

CAPITULO V

*FUNCIONAMIENTO DE LOS ORGANOS COLEGIADOS DE LA MANCOMUNIDAD*

**ARTICULO 17º.- DE LA ASAMBLEA GENERAL**

**ARTICULO 18º.- DE LA JUNTA PLENARIA**

| | |
|---|---|
| **19. ARTIKULUA.- GOBERNU BATZARRA** | **ARTICULO 19º.- DE LA JUNTA DE GOBIERNO** |
| **20. ARTIKULUA.- ERABAKIAK** | **ARTICULO 20º.- DE LOS ACUERDOS** |
| **21. ARTIKULUA.- AKTAK.** | **ARTICULO 21º.- DE LAS ACTAS** |
| VI. KAPITULUA | CAPITULO VI |
| *BALIABIDE EKONOMIKOAK* | *RECURSOS ECONOMICOS* |
| **22. ARTIKULUA.- BALIABIDE EKONOMIKOAK** | **ARTICULO 22º.- RECURSOS ECONOMICOS** |
| **23. ARTIKULUA.- HASIERAKO EKARPENA** | **ARTICULO 23º.- APORTACIÓN INICIAL** |
| **24. ARTIKULUA.- OHIKO EKARPENAK ETA EZ-OHIKO EKARPENAK** | **ARTICULO 24º.- APORTACIONES ORDINARIAS Y APORTACIONES EXTRAORDINARIAS** |
| **25. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEARI EKARPENAK ORDAINTZEAREN BERMEAK** | **ARTICULO 25º.- GARANTIAS EN EL ABONO A LA MANCOMUNIDAD DE LAS APORTACIONES** |
| VII. KAPITULUA | CAPITULO VII |
| *LANGILERIA* | *DEL PERSONAL* |
| **26. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEKO LANGILERIA, ARAUKETA ETA ITUN APLIKAGARRIA** | **ARTICULO 26º.- DEL PERSONAL DE LA MANCOMUNIDAD, REGULACIÓN Y CONVENIO APLICABLE** |
| VIII. KAPITULUA | CAPITULO VIII |
| *INDARRALDIA, ESTATUTUEN ALDARAZPENA ETA MANKOMUNITATEA DESEGITEA.* | *DEL PLAZO DE VIGENCIA, DE LA MODIFICACION DE LOS ESTATUTOS Y DE LA DISOLUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD.* |
| **27. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEAREN INDARRALDIA** | **ARTICULO 27º.- VIGENCIA DE LA MANCOMUNIDAD** |
| **28. ARTIKULUA.- ESTATUTUEN ALDARAZPENA** | **ARTICULO 28º.- MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS** |
| **29. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEA DESEGITEA** | **ARTICULO 29º.- DISOLUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD** |
| **30. ARTIKULUA.- DESEGITEKO PROZEDURA** | **ARTICULO 30º.-PROCEDIMIENTO PARA LA DISOLUCIÓN** |
| IX. KAPITULUA | CAPITULO IX |
| *UDALERRIAK MANKOMUNITATERA ATXIKITZEA ETA MANKOMUNITATETIK BEREIZTEA* | *ADHESION Y SEPARACIÓN DE MUNICIPIOS DE LA MANCOMUNIDAD* |
| **31. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATERA ATXIKITZEA** | **ARTICULO 31º.- ADHESIÓN A LA MANCOMUNIDAD** |
| **32. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATETIK BORONDATEZ BEREIZTEA** | **ARTICULO 32º.- SEPARACIÓN VOLUNTARIA DE LA MANCOMUNIDAD** |
| **33. ARTIKULUA.- BEREIZTEAREN ONDOREAK** | **ARTICULO 33º.- EFECTOS DE LA SEPARACIÓN** |
| **34. ARTIKULUA.- NAHITAEZ BEREIZTEA** | **ARTICULO 34º.- SEPARACIÓN OBLIGATORIA** |
| **35. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA** | **ARTICULO 35º.- PUBLICIDAD** |
| *36. ARTIKULUA.- FORMAZKO ONDOREAK* | *ARTICULO 36º.- EFECTOS FORMALES* |
| ALDI BATERAKO XEDAPEN BAKARRA | DISPOSICION TRANSITORIA UNICA |
| AMAIERAKO XEDAPENAK | DISPOSICIONES FINALES |

# ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK

# I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

**1. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATE-AREN ERAKETA**

1. ARANTZAZU, AREATZA, ARTEA, BEDIA, DIMA, IGORRE, LEMOA, UBIDE eta ZEANURIKO udalerriek, Bizkaiko Lurralde Historikokoak denak, beren Udalek ordezkatuta, BORONDATEZKO MANKOMUNITATEA eratuta daukate, udalaz gaindiko eta erabateko ahalmen juridikoko lurralde mailako Toki Erakunde legez, Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 44. artikuluan eta Bizkaiko Udalaz Gaindiko Esparruko Erakundeak Araupetzen dituen martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorrita, Estatutu hauetan adierazitako udal eskumeneko helburuak betetzera begira.

2. Gertutasuneko eta komunikazioko arrazoi geografikoak direla-eta, eremu honetako beste udalerri batzuek ere atxikitzea aurreikusten da, betiere beren udalek eskatu eta erabakitzen badute eta, horretarako, Estatutuetan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

# II. KAPITULUA

## IZENDAPENA, HELBIDEA, XEDEAK ETA NORTASUNA

**2. ARTIKULUA- IZENDAPENA, XEDEA, LURRALDE ESPARRUA ETA KORPORAZIOAREN ARMARÍA.-**

Eratutako Mankomunitatearen izena "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA" izango da, eta egoitza Igorreko Elizatean, "Hilario Soloeta Jaunaren Etxea" esaten zaion Elexalde kaleko 49ko higiezinean izango du.

# ESTATUTOS ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

# CAPITULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

**ARTICULO 1º.- CONSTITUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD**

1. Los Municipios de ARANTZAZU, AREATZA, ARTEA, BEDIA, DIMA, IGORRE, LEMOA, UBIDE y ZEANURI, todos ellos pertenecientes al Territorio Histórico de Bizkaia, representados por sus respectivos Ayuntamientos, constituyen una MANCOMUNIDAD VOLUNTARIA, como Entidad Local territorial de carácter supramunicipal y con plena capacidad jurídica, conforme a lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 7/1.985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y en la Norma Foral 3/1995, de 30 de marzo, Reguladora de las Entidades de Ambito Supramunicipal de Bizkaia, al objeto de cumplir los fines de competencia municipal, señalados en los presentes Estatutos.

2. Se prevé, por razones geográficas de proximidad y comunicación, la adhesión de otros municipios de la zona, siempre que lo soliciten y acuerden los Ayuntamientos respectivos, para lo cual, se seguirá el procedimiento establecido en los Estatutos.

# CAPITULO II

## DENOMINACIÓN, DOMICILIO, FINES Y PERSONALIDAD

**ARTICULO 2º.- DENOMINACIÓN, SEDE, AMBITO TERRITORIAL Y ESCUDO CORPORATIVO.-**

La Mancomunidad constituida se denominará "ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA", fijándose su Sede en la Anteiglesia de Igorre, en el inmueble Nº 49 de Elexalde kalea, conocido como la "Casa de D. Hilario Soloeta".

Mankomunitatearen lurralde esparruak mankomunatutako Udalen mugarteak hartuko ditu.

El ámbito territorial de la Mancomunidad comprenderá el de los términos municipales de los Ayuntamientos mancomunados.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN Korporazioaren Armarria Gorbeiako Gurutzearen zuri-beltzeko irudikapen grafiko eta albo bietan berdez koroatua izango da.

El Escudo Corporativo de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, será la representación gráfica de la Cruz de Gorbeia en colores blanco y negro, con laureado a ambos lados de color verde.

**3. ARTIKULUA. XEDEA, HELBURUAK, ESKUMENAK ETA KUDEAKETA MODUA**

1. Mankomunitatearen xedea zerbitzuen kudeaketa eta prestazioa da. Horren harira, mankomunatutako udalek ondoko zerbitzuak modu mankomunatuan emateko konpromisoa hartzen dute:

a).- Mankomunatutako udalerrietan sortu eta pilatzen diren Hiriko Hondakin Solidoak bildu eta zabortegira garraiatzea, baita hondakinen bilketa sailkatua egitea ere, erabiltzaileen tasaren likidazioa barne.

b).- Gizarte Zerbitzuen ezarpena, antolaketa eta kudeaketa.

c).- Mankomunatutako udalerrietako Herri Argiztapena mantendu eta egokitzea.

d).- Laguntza teknikoa, hau da, Hirigintzako Bulego Teknikoa mantentzea.

e).- Enplegua eta Prestakuntza (Lanbide Hastapeneko Ikastegia).

f).- "ARRATIAKO EGOITZA – Herri Erakunde Autonomoa"

g).- Tasa, Prezio Publiko eta Tokiko Zergak biltzea, bai borondatezko epean bai ordainarazteko epean.

h).- Bake Epaitegien Idazkaritzak Biltzea.

**ARTICULO 3º .- OBJETO, FINES, COMPETENCIAS Y FORMA DE GESTION**

1. La Mancomunidad tiene por objeto la gestión y prestación de servicios. En este sentido, los Ayuntamientos mancomunados se comprometen a la prestación de forma mancomunada de los siguientes servicios:

a).- Recogida y transporte a Vertedero de los Residuos Sólidos Urbanos, y de la Recogida Selectiva de los residuos que se produzcan y depositen en los términos municipales mancomunados, incluso la liquidación de la Tasa a los usuarios.

b).- Establecimiento, organización y gestión de los Servicios Sociales.

c).- Mantenimiento y Adecuación del Alumbrado Público de los municipios mancomunados.

d).- Asistencia técnica, consistente en el mantenimiento de Oficina Técnica Urbanística.

e).- Empleo y Formación (Centro de Iniciación Profesional)

f).- "ARRATIAKO EGOITZA – Herri Erakunde Autonomoa"

g).- Recaudación de Tasas, Precios Públicos y Tributos Locales, tanto en periodo voluntario, como en periodo ejecutivo.

h).- Agrupación de Secretarías de Juzgados de Paz

2.- Mankomunitateak, arestiko lerroaldean aurreikusitakoa aurreikusita ere, bere gain hartu ahal izango ditu udal bakoitzak mankomunatu nahi dituen zerbitzu guztiak ere, ezarri ahala, eta zerbitzu horien prestaziorako Osoko Bilkurak zehaztu eta unean-unean planteatzen diren beharretara ondoen moldatzen direla irizten dien sistema eta prozedurez baliatuko da, hala nola:

- Ingurumen Ekintzako planak eta Ingurumena babesteko jarduerak ezartzea.
- Ahalmen Psikiko Urrikoen garraioa.
- Euskararen sustapena eta erabilpena.
- Eskualdearen sustapena.
- "GURUTZE GORRIA" Eskualdeko Batzarra mantentzea.

3.-Mankomunitatea osatzen duten udalerri desberdinak nahitaez sartuko dira 3. artikuluaren 1. puntuan jasotako zerbitzuetara, eta 3. artikuluaren 2. puntuan esandakoetan beren borondatez sartu ahal izango dute.

Zerbitzu batzuetara soilik atxikitzen diren udalek ondoren beste batzuetara ere atxikitzea izango dute, betiere horien hedapenak instalazioaren gastuen konpentsazio proportzionalaren bidez uzten badu. Horretarako, Osoko Bilkurak zerbitzu bakoitzaren kontularitza banatuta eramango du eta, era berean, bakoitzaren instalazio eta amortizazio gastuak eta funtzionamenduko gastuak bereiztuta adieraziko dira.

4.- Mankomunitatearen administrazioko gastu orokorrak mankomunatutako udal guztiek ordainduko dituzte, sartuta daudeneko zerbitzuak direnak direlarik.

5.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK ezin izango ditu beretu udalerri bakoitzari esleitutako eskumen guzti-guztiak.

6.- Mankomunitatearen esku utzitako zerbitzuen kudeaketa eta prestazioa Tokiko Araubideari aplikatzekoa zaion legedian legez ezarritako kudeaketa eta administrazioko moduen bidez burutuko da.

2.- La Mancomunidad con independencia de lo previsto en el párrafo anterior, podrá hacerse cargo de todos los servicios que cada Ayuntamiento desee mancomunar, según vayan estableciéndose, y se utilizarán para su prestación los sistemas y procedimientos que la Junta Plenaria determine y considere más adecuados a las necesidades que se planteen en cada momento, tales como:

- Establecimiento de Planes de Acción Ambiental y de actuaciones en protección del Medio Ambiente.
- Transporte de Disminuidos Psíquicos.
- Promoción y uso del Euskera.
- Promoción comarcal.
- Mantenimiento de la Asamblea Comarcal "CRUZ ROJA"

3.- La incorporación de los distintos Municipios que integran la Mancomunidad se realizará obligatoriamente a los servicios recogidos en el artículo 3º - Punto 1, y además , pudiendo hacerlo voluntariamente a los expresados en el artículo 3º - Punto 2.

Los Ayuntamientos que se adscriban únicamente a algunos servicios, podrán posteriormente incorporarse a otros, siempre que la ampliación de aquellos lo permita mediante la compensación proporcional de los gastos de instalación. A tal efecto, la Junta Plenaria llevará contabilidad separada de cada uno de los servicios, especificándose también de forma separada los gastos de instalación y amortización y los de funcionamiento, respectivos.

4.- Los gastos generales de administración de la Mancomunidad serán satisfechos por todos los Ayuntamientos mancomunados, con independencia de los servicios en que se hallen integrados.

5.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA no podrá asumir la totalidad de las competencias asignadas a los respectivos Municipios.

6.- La gestión y prestación de los servicios encomendados a la Mancomunidad, se llevarán a cabo a través de los modos de gestión y administración legalmente establecidos en la legislación aplicable al Régimen Local.

**4. ARTIKULUA.- NORTASUN JURIDIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN AHALGOAK**

1.- Bere xedeak betetzeko, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK erabateko nortasun eta gaitasun juridikoa dauzka, eta ondoko ahalmen hauek ditu:

a) Arauak ezartzeko eta bere burua antolatzeko.

b) Finantzak eta tributuak kudeatzeko, tributuen kontuan zerga izaera dutenak ezartzeko eskuduntza salbu.

c) Programatu eta plangintzak egiteko.

d) Bere egintza eta erabakiak zilegi eta betearaztekotzat jo dakizkion.

e) Bere egintza eta erabakiak ofizioz berrikusteko.

f) Bere xedeak betetzeko behar diren obrei lotutako derrigorrezko desjabetzetik mozkinak atera ahal izateko.

g) Nahitaez betearazteko eta zehatzeko ahalmena.

h) Bere ondasunak ofizioz ikertu, mugatu eta berreskuratzeko.

i) Bere ondasun eta eskubideak bahitu ezinak izateko, legeek ezarritako terminoetan, baita bere kredituetarako aintzatetsitako lehentasun, hobespen eta gainerako eskubideez gozatzeko ere, Foru edo Estatuko Ogasunari dagozkienen kalterik gabe.

2.- Indarrean dagoen legeriaren arabera, Mankomunitateak era guztietako ondasunak (higigarriak zein higiezinak) erosi, eduki, beregain hartu, trukatu, zergapetu edo besterendu ahal izango ditu. Halaber, kontratuak egin ahal izango ditu, bai eta lan eta zerbitzuak instalatu eta ustiatu ere, legeetan aurreikusitako ekintzak burutu eta egoki diren errekurtsoak jarri. Era berean, lanak egiteagatik edo zerbitzuak emateagatik eratorritako tarifa, tasa eta prezio publikoak onetsi ahal izango ditu.

**ARTICULO 4º.- PERSONALIDAD JURIDICA Y POTESTADES ADMINISTRATIVAS.**

1.- Para el cumplimiento de sus fines, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, tiene plena personalidad y capacidad jurídica, correspondiendo a la misma las siguientes potestades:

a) Reglamentaria y de autoorganización.

b) Financiera y tributaria, excluyéndose en este último supuesto la facultad de establecer tributos que tengan el carácter de impuesto.

c) De programación y planificación.

d) De presunción de legitimidad y ejecutividad de sus actos.

e) La revisión de oficio de sus actos y acuerdos.

f) La facultad de obtener beneficios de la expropiación forzosa en relación con las obras necesarias para el cumplimiento de sus fines.

g) De ejecución forzosa y sancionadora.

h) De investigación, deslinde desahucio administrativo, y recuperación de oficio de sus bienes.

i) La inembargabilidad de sus bienes y derechos, en los términos establecidos por las leyes y los de prelación, preferencia y demás prerrogativas reconocidas en relación con sus créditos, sin perjuicio de las que correspondan a las Haciendas Foral o Estatal.

2.- De acuerdo con la legislación vigente, la Mancomunidad podrá adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, muebles o inmuebles, celebrar contratos, instalar y explotar obras y servicios, ejecutar las acciones previstas en la leyes e interponer los recursos pertinentes, así como aprobar las tarifas, tasas y precios públicos por la realización de las obras o la prestación de los servicios de que se trate.

# III. KAPITULUA

## GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

**5.- ARTIKULUA.-** Mankomunitatearen Gobernua ondoko organoen ardurapean egongo da:

a.-) Batzar Orokorra.
b.-) Osoko Bilkura.
c.-) Gobernu Batzarra.
d.-) Lehendakaria.
e.-) Lehendakariordea.

2.- Hala ere, Osoko Bilkurak edozein Informazio Batzorde iraunkor edo berezi, edo bidezko irizten dion bestelako antolakunde osagarri sortu ahal izango du.

3.- Mankomunatutako udalerri batek ere ez du erabateko gehiengorik izango Mankomunitatearen Gobernu Organoetan.

4.- Mankomunitatearen administrazio eta ekonomia eta finantzen kudeaketa ondoko Organoen ardurapean egongo da:

a.-) Idazkaritza- Kontuhartzailetza
b.-) Diruzaintza.

**6. ARTIKULUA.- BATZAR OROKORRA**

1.- Batzar Orokorrean Mankomunitatea osatzen duten udal guztietako alkate eta zinegotzi guzti-guztiak daude.

2.- Hona hemen Batzar Orokorraren eskuduntzak:

a).- Estatutu hauen aldarazpena erabakitzea, legez exijitutako betekizunekin.

b).- Mankomunitatea desegitea erabakitzea.

# CAPITULO III

## DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO Y DE ADMINISTRACION

**ARTICULO 5º.-** 1.- El Gobierno de la Mancomunidad estará a cargo de los siguientes Órganos:

a.-) La Asamblea General.
b.-) La Junta Plenaria.
c.-) La Junta de Gobierno.
d.-) El Presidente.
e.-) El Vicepresidente.

2.- No obstante la Junta Plenaria, podrá crear cualquier tipo de Comisión Informativa con carácter permanente o especial, o cualquier otro tipo de organización complementaria que estime procedente.

3.- Ningún Municipio mancomunado ostentará la mayoría absoluta en ninguno de los Órganos de Gobierno de la Mancomunidad.

4.- El Administración y la gestión económica y financiera de la Mancomunidad estará a cargo de los siguientes Órganos:

a.-) La Secretaría-Intervención
b.-) La Tesorería.

**ARTICULO 6.- LA ASAMBLEA GENERAL**

1.- La Asamblea General es el órgano compuesto por la totalidad de los Alcaldes y Concejales de todos los Ayuntamientos que integran la Mancomunidad.

2. Son competencias de la Asamblea General:

a.-) Acordar la modificación de los presentes Estatutos, con los requisitos legales exigidos.

b.-) Acordar la disolución de la Mancomunidad.

**7. ARTIKULUA.- OSOKO BILKURA.-**

1.- Osoko Bilkura Mankomunitatearen Gobernu eta Administrazioko organo gorena da, Mankomunitatea ordezkatzen baitu, eta Zuzenbide Publikoko Korporazio izaeraren nortasuna ematen baitio.

2.- Bilkura horretan mankomunatutako udalerri guztiak ordezkatuta egongo dira, eta udal bakoitzak hautatuko ditu, udalaren osoko bilkuran, udalbatzako kideen artetik, Mankomunitateko kide legez nork ordezkatuko duen, ondorengo proportzio honetan:

1000 biztanlera bitartean: 1 ordezkari
1001etik 2000 biztanlera artean: 2 ordezkari
2001etik 3000 biztanlera artean: 3 ordezkari
3001etik 4000 biztanlera artean: 4 ordezkari
4001 biztanletik gora: 5 ordezkari

3.- Aparteko bileran eta Osoko Bilkuraren Batzaren aurrean aukeratuko dituzten euren ordezkariak mankomunitatea osatzen duten Udalek. Udal hauteskundeen ondoren, egin beharko da bilera hori; Udaletxeak osatzeko bilera egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

4.- Artikulu honen 2. puntuan xedatutakoa, betetzeko mankomunitateko Udal bakoitzak osoko bilkuraren batzan zenbat mahaikide izan behar dituen oinarritzat hartu eta Udalean ordezkaritza duten alderdi edo talde politikoen artean aukeratuko dituzte mahaikideak. Horretarako Udal hauteskundeetan alderdi edo talde politiko bakoitzak lortu duen boto kopurua hartuko da oinarritzat eta kopuru horri "D' Hont Sistema" aplikatuko zaio; guztia Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 163. artikuluan aurreikusitako prozedura oinarritzat hartuta.

5.- Osoko Bilkurako kide bakoitzak hitz egin eta botoa emateko eskubidea izango du. Botoa emateko eskubidea ordezkatzen dituzten udalerriak mankomunatuta daudeneko zerbitzuen kontuetarako soilik gauzatuko dute.

**ARTICULO 7º.- LA JUNTA PLENARIA.-**

1. La Junta Plenaria es el órgano supremo de Gobierno y Administración de la Mancomunidad, a la que representan y personifica con el carácter de Corporación de Derecho Público.

2.- En dicha Junta estarán representados todos los Municipios mancomunados, correspondiendo a los Ayuntamientos respectivos elegir en sesión plenaria de entre sus miembros corporativos a quienes hayan de representarles en la Mancomunidad como Vocales de la misma, con arreglo a la siguiente proporción:

Hasta 1.000 habitantes 1 representante
De 1.001 a 2.000 habitantes 2 representantes
De 2.001 a 3.000 habitantes 3 representantes
De 3.001 a 4.000 habitantes 4 representantes
Más de 4.001 habitantes 5 representantes

3.- Los Ayuntamientos mancomunados designarán a sus representantes ante la Junta Plenaria, en sesión extraordinaria celebrada dentro de los treinta días siguientes a la de la Sesión Constitutiva de los Ayuntamientos tras las Elecciones Municipales.

4.- Los Ayuntamientos mancomunados, a la vista de los Vocales que les corresponden en la Junta Plenaria a cada uno de ellos, en aplicación de lo dispuesto en el Punto 2º del presente artículo, distribuirán los Vocales entre los partidos o grupos políticos con representación en el Consistorio, aplicando para ello el "Sistema D' Hont" sobre el número total de votos obtenidos por cada partido o grupo político en las Elecciones Municipales, todo ello de conformidad con el procedimiento previsto en el artículo 163º de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General.

5-. Cada uno de estos Vocales tendrá derecho a voz y voto. El derecho a voto de los Vocales sólo podrá ser ejercido en relación a aquellos servicios para los que se hallen mancomunados los Municipios a los que representan.

6.- Kideen agintaldiak Udalbatzako Zinegotzi diren artean iraungo du. Behin agintaldia amaituta, eta ondorengoek karguaz jabetu arte, administrazio arrunteko eginkizunetan baino ez dute jarraituko eta ez dute, inola ere, legez gehiengo kualifikatua exijitzen deneko erabakirik hartzerik izango.

6-. La duración del mandato de los Vocales será por el mismo tiempo que la condición de Concejal de la Corporación Municipal electora. Una vez finalizado su mandato continuarán en sus funciones solamente para la administración ordinaria hasta la toma de posesión de sus sucesores, sin que en ningún caso, puedan adoptar acuerdos para los que legalmente se exija una mayoría cualificada.

7.- Legez aurreikusitako ezein baldintzarengatik zinegotzi izaera galtzeak Mankomunitateko Osoko Bilkurako kide izaera ere galtzea ekarriko du. Halakoetan, dagokion udalak kide berria izendatuko du.

7-. La pérdida de la condición de Concejal por cualquiera de las causas legalmente previstas determinará la pérdida de la condición de Vocal de la Junta Plenaria de la Mancomunidad. En este caso, el Ayuntamiento al que corresponda procederá a la designación de un nuevo Vocal.

8.- Osoko Bilkurako kideak berriro hautatu ahal izango dituzte hurrengo agintaldirako.

8.- Los Vocales de Junta Plenaria podrán ser reelegidos como tales.

**8. ARTIKULUA.- LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEA. HAUTESPENA, ORDEZKAPENA ETA KARGUGABETZEA**

1.- Osoko Bilkurak, eratu edo berritzen den egunean, kideetako bat Lehendakaria hautatuko du, Gobernu Batzarreko buru ere izango dena.

Hautespena idatzizko eta isilpeko bozketa bakarrean erabakiko da, botorik gehien lortzen duen kidea Lehendakaria izendatuko dutelarik. Berdinketarik izatekotan, mankomunatutako udalerrien multzoan botorik gehien lortu duen alderdi politiko edo hauteskundeetarako koalizioaren ordezkaria izendatuko dute presidente.

2.- Lehendakariordea Mankomunitateko Lehendakariak Gobernu Batzarreko kideen artetik libreki izendatu eta kargugabetuko du, Osoko Bilkurak egiten duen lehenengo bileran jakinaraziko den Ebazpenaren bidez.

3.- Lehendakaria eta Lehendakariordea ezin izango dira udalerri beraren ordezkari izan.

4.- Lehendakariaren aldi bateko hutsune, absentzia edo gaixotasunik izatekotan, Lehendakariordeak haren ordezkoa beteko du, hari dagozkion egitekoetan.

**ARTICULO 8º.- DEL PRESIDENTE Y DEL VICEPRESIDENTE ELECCIÓN, SUSTITUCIÓN Y DESTITUCIÓN**

1.- La Junta Plenaria, en el día de su constitución o renovación, elegirá de entre sus miembros a un Presidente, que lo será también de la Junta de Gobierno.

La elección se efectuará en una sola votación escrita y secreta, siendo designado Presidente el vocal que obtenga el mayor número de votos. En caso de que se produzca igualdad de votos, el nombramiento recaerá en el representante del partido político o agrupación o coalición electoral que haya obtenido mayor número de votos en el conjunto de los municipios mancomunados.

2.- El Vicepresidente será nombrado y cesado libremente por el Presidente de la Mancomunidad, de entre los miembros de la Junta de Gobierno, mediante Resolución de la que se dará cuenta a la Junta Plenaria en la primera sesión que se celebre.

3.- El Presidente y el Vicepresidente no podrán ser representantes del mismo Municipio.

4.- En el caso vacante temporal, ausencia o enfermedad del Presidente, el Vicepresidente, sustituirá temporalmente al Presidente en sus funciones.

5.- Lehendakaritza behin betiko hutsik geratzen bada jada hasitako legealdi batean, titularraren kargu uzte, epai judizial, halabeharrezko zio edota heriotzarengatik, hutsune hori betetzeko 1. puntuan Osoko Bilkura osatu ondoren Lehendakaria hautatzeko esandako prozedurari jarraituko zaio.

5.- En el caso de vacante definitiva de la Presidencia dentro del transcurso de una Legislatura ya comenzada, motivada por renuncia al cargo, sentencia judicial, causa de fuerza mayor y/o fallecimiento del titular, para cubrir la vacante se procederá seguir el procedimiento señalado en el Punto 1 para la elección del cargo de Presidente tras la constitución de la Junta Plenaria.

6.- Lehendakariordearen tokia behin betiko hutsik geratzen bada jada hasitako legealdi batean, titularraren kargu uzte, epai judizial, halabeharrezko zio edota heriotzarengatik, Lehendakariak beste Ebazpen baten bidez Lehendakariorde berria izendatuko du.

6.- En el caso de vacante definitiva de la Vicepresidencia dentro del transcurso de una Legislatura ya comenzada, motivada por renuncia al cargo, sentencia judicial, causa de fuerza mayor y/o fallecimiento del titular, el Presidente deberá proceder a dictar una nueva Resolución para el nombramiento de un nuevo Vicepresidente.

7.- Lehendakaria bere kargutik kendu ahal izango da Osoko Bilkurako kideen legezko erabateko gehiengoak erabakitako zentsura mozioaren bidez. Horretarako prozedura hauteskundeetako legedian Alkatea kargu gabetzeko aurreikusitako bera izango da.

7.- El Presidente podrá ser destituido de su cargo mediante moción de censura adoptada por mayoría absoluta del número legal de miembros de la Junta Plenaria. El procedimiento será el previsto en la legislación electoral para la destitución del Alcalde.

**9. ARTIKULUA.- GOBERNU BATZARRA**

1.- Gobernu Batzarran Mankomunitateko Lehendakaria eta mankomunatutako Udalerri bakoitzeko kide-ordezkari bat egongo dira.

2.- Gobernu Batzarreko kideak Mankomunitateko Lehendakaritzak izendatuko ditu, mankomunatutako udalerrietako Udalen Osoko Bilkura bakoitzak proposatuta, eta izendatutako kidea Mankomunitateko Osoko Bilkurako kide izan behar da.

3.- Udalen Osoko Bilkurek Gobernu Batzarrarako beren ordezkarien izendapenerako egiten dituzten proposamenak lotesleak izango dira Mankomunitatearen Lehendakaritzarentzat.

4.- Mankomunitatearen Lehendakariordea den Gobernu Batzarrako kideak aldi berean bere udalerria ere ordezkatuko du Gobernu Organo horretan.

**ARTICULO 9º.- LA JUNTA DE GOBIERNO**

1.- La Junta de Gobierno estará integrada por el Presidente de la Mancomunidad, así como por un Vocal-representante de cada Municipio mancomunado.

2.- Los Vocales de la Junta de Gobierno serán nombrados por la Presidencia de la Mancomunidad, a propuesta de cada uno los Plenos Municipales de los Municipios mancomunados, debiendo poseer el Vocal nombrado, la condición de miembro de la Junta Plenaria de la Mancomunidad.

3.- La propuesta efectuada por los Plenos Municipales para el nombramiento de sus respectivos representantes en la Junta de Gobierno, tendrá carácter vinculante para la Presidencia de la Mancomunidad.

4.- El Vocal de la Junta de Gobierno que ostente la condición de Vicepresidente de la Mancomunidad, ejercerá al mismo tiempo la representación de su Municipio en dicho Órgano de Gobierno.

5.- Legez aurreikusitako edozein ziorengatik zinegotzi izaera galtzeak Mankomunitateko Gobernu Batzarrako kide izaera ere galtzea ekarriko du. Halakoetan, Lehendakariak, kargu gabetutako kidearen Udaleko Osoko Bilkurak proposatuta, Gobernu Batzarrarako kide berria izendatuko du.

5.- La pérdida de la condición de Concejal por cualquiera de las causas legalmente previstas, determinará la pérdida de la condición de Vocal de la Junta de Gobierno de la Mancomunidad. En este caso, el Presidente, a propuesta del Pleno del Ayuntamiento al que pertenezca el Vocal cesante, procederá a la designación de un nuevo miembro de la Junta de Gobierno.

**10. ARTIKULUA.- IDAZKARI-KONTU HARTZAILEA, DIRUZAINA ETA GERENTEA.**

1.- Idazkari-Kontuhartzaile postua Estatu izaerako Gaitasuneko Karrerako Funtzionario batek beteko du, eta toki horren zuzkidura kasu horretan aplikatzekoa den legedian xedatuta dagoen bezala gauzatuko da.

Idazkari-Kontuhartzailearen hutsunerik, absentziarik edo gaixotasunik izatekotan, bere eginkizunetan Mankomunitateko Karrerako Funtzionario batek ordezkatu ahal izango du.

2.- Mankomunitatearen Diruzain kargua Osoko Bilkurako kide bat izan daiteke, irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 18-4. artikuluan xedatzen den bezala izendatuta.

3.- Mankomunitatearen Osoko Bilkurak komenigarri iriztekotan, mankomunitateko gerente postua sortu eta bete ahal izango da. Eginkizunak postuaren deialdiaren erabakian zehaztuko dira, baina ezin izango du, inola ere, Idazkari-Kontuhartzailearen berezko eginkizun edo ardurarik beretu.

Kontratuaren modalitatea lan legedikoa izango da.

**ARTICULO 10º.- DEL SECRETARIO-INTERVENTOR, DEL TESORERO Y DEL GERENTE.-**

1.- El puesto de Secretario-Interventor será desempeñado por un Funcionario de Carrera con Habilitación de carácter Estatal, y su provisión se realizará de conformidad con lo dispuesto en la legislación aplicable al supuesto.

En el caso de vacante, ausencia o enfermedad del Secretario-Interventor, éste podrá ser sustituido en sus funciones por un Funcionario de Carrera de la Mancomunidad.

2.- El cargo de Tesorero de la Mancomunidad podrá recaer en un Vocal de la Junta Plenaria designado conforme a lo dispuesto en el artículo 18º-4 del Real Decreto nº 1174/1987, de 18 de septiembre.

3.- Si así lo estimara conveniente la Junta Plenaria de la Mancomunidad, podrá crearse y proveerse un puesto de Gerente de la misma. Sus funciones vendrán determinadas en el Acuerdo de convocatoria del puesto, pero en ningún caso podrá asumir las labores y responsabilidades propias de la Secretaría-Intervención.

La modalidad contractual será la de la legislación laboral.

**11. ARTIKULUA.- ORGANOEN BERRITZEA.-**

Osoko Bilkura, Gobernu Batzarra eta Mankomunitatearen Lehendakariordea lau urtean behin berrituko dira, Udal Hauteskundeen ostean udalbatzak erabat edo zati batean aldaraztearekin batera, hartara, Mankomunitatearen Gobernu eta Administrazio Organoak, ahal den heinean, Udaletan karguez jabetzeko

**ARTICULO 11º.- RENOVACIÓN DE LOS ÓRGANOS**.-

La Junta Plenaria, la Junta de Gobierno, la Presidencia y la Vicepresidencia de la Mancomunidad se renovarán cada cuatro años, haciendo coincidir ésta renovación con la modificación total o parcial de la Corporaciones municipales tras las Elecciones Municipales, posibilitándose, así que los Órganos de Gobierno y

egunaren hurrengo zazpi (7) egunen barruan eratu ahal izan daitezen.

Administración de la Mancomunidad puedan constituirse, en lo posible, dentro de los siete (7) días siguientes al que corresponda tomar posesión a los Ayuntamientos.

Mankomunatutako udalerrietako edozeinetako kargu ordezkaririk hil delako edo kargua galdu duelako hutsunea, izendapena ezeztatzea, edo halakorik gertatzekotan, ukitutako udalak Mankomunitaterako bere ordezkariaren ordezkoa izendatuko du hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan.

En caso de producirse vacante por fallecimiento, pérdida del cargo representativo en cualquiera de los municipios mancomunados, revocación de nombramiento, etc., el Ayuntamiento afectado designará el correspondiente sustituto en la Mancomunidad dentro del plazo de treinta (30) días.

## IV. KAPITULUA

### MANKOMUNITATEKO ORGANOEN ESKURANTZAK.

**12. ARTIKULUA.- BATZAR OROKORRA.-**

1.- Batzar Orokorra Lehendakariak deituko du Estatutu hauetako 6. artikuluan adierazten diren bere eskumeneko gaiak aztertzeko.

2.- Deialdiarekin batera Eguneko Aztergaien Zerrenda bidaliko da.

3.- Batzar Orokorra, era berean, kideen kopuruaren laurdenak eskatuta deitu ahal izango da.

**13. ARTIKULUA.- OSOKO BILKURA.-**

Hona hemen Osoko Bilkuraren eskumenak:

a) Mankomunitateko Lehendakaria hautatzea.

b) Diruzaina izendatzea.

c) Mankomunitateko Gobernu Organoak kontrolatu eta fiskalizatzea.

## CAPITULO IV

### ATRIBUCIONES DE LOS ÓRGANOS DE LA MANCOMUNIDAD.

**ARTICULO 12º.- DE LA ASAMBLEA GENERAL**.-

1. La Asamblea General será convocada por el Presidente para tratar de los asuntos de su competencia que se señalan en el artículo 6º de los presentes Estatutos.

2. A la convocatoria se acompañará el Orden del Día.

3. Asimismo, podrá ser convocada la Asamblea General a petición de la cuarta parte del número de sus miembros.

**ARTICULO 13º.- DE LA JUNTA PLENARIA**.-

Será de la competencia de la Junta Plenaria:

a) La elección de Presidente de la Mancomunidad.

b) El nombramiento del Tesorero.

c) Controlar y fiscalizar los Órganos de Gobierno de la Mancomunidad.

d) Mankomunitatearen Funtzionamendurako Arautegi Organikoa, Zerga Araudiak, Erakunde Autonomoetako Estatutuak eta gainerako xedapen orokorrak onetsi eta, behar izanez gero, aldaraztea.

e) Estatutuak aldarazi edo erreformatzeko, Udalerriak 3/1995 Foru Arauan edo horren ordezko zein gehigarri izan litekeen xedapenaren arabera atxiki eta bereizteko ekimena bideratu, horretarako proposamena edo proposamenak egin eta behar diren erabakiak hartzea.

f) Udalerriei dagozkien kuota edo ekarpenak ezarri eta onestea.

g) Tributuen gaineko berezko baliabideak zehaztea, Aurrekontuak onetsi eta aldaraztea, bere eskumeneko gaietako gastuak xedatzea eta kontuak onestea.

m.-) Ondasunak beste herri Administrazio edo erakunde batzuei doan lagatzea.

n.-) Tokiko Administrazioaren legediak quorum berezia eskatzen duen erabakiak bertan ezartzen den moduan hartuko dira.

a.-) Modificación de los Estatutos y disolución de la Mancomunidad.

b.-) Adhesión de nuevos Municipios.

c.-) Separación de Municipios.

d.-) Establecimiento de nuevos servicios o cese en la prestación de un servicio.

e.-) Modificación del porcentaje de aportación señalado a cada municipio.

f.-) Imposición y ordenación de los recursos propios de carácter tributario.

g.-) Aprobación y modificación del Reglamento Orgánico de la Mancomunidad.

h.-) Aprobación y modificación de los Estatutos de los Organismos Autónomos de la Mancomunidad.

i.-) Transferencia de funciones o actividades a otras Administraciones Públicas, así como la aceptación de las delegaciones o encomiendas de gestión realizadas por otras Administraciones, salvo que por ley se impongan obligatoriamente.

j.-) Aprobaciones de operaciones financieras o de crédito y concesiones de quitas o esperas, cuando su importe supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios de su Presupuesto, así como las operaciones de crédito previstas en el art. 158.5 de la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

k.-) Concesión de bienes y servicios por más de cinco años, siempre que su cuantía exceda del veinte por ciento de los recursos ordinarios del Presupuesto.

l.-) Enajenación de bienes, cuando su cuantía exceda del 10 por 100 de los recursos ordinarios del Presupuesto.

m.-) Cesión gratuita de bienes a otras Administraciones o instituciones públicas.

n.-) Aquellos acuerdos para los que la legislación de Administración Local requiera un quórum especial, habrán de adoptarse en la forma establecida en la misma.

**21.- ARTIKULUA.- AKTAK.-**

Osoko Bilkuraren eta GOBERNU BATZARRAren bileren Aktei Tokiko Araubideko Gaietan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Berregina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 50, 51 eta 52. artikuluak aplikatuko zaizkie, baita Testu Berregin hori garatzen duten arauetan jasotako manuak ere.

**ARTICULO 21º.- DE LAS ACTAS.-**

Serán aplicables a las Actas de las Sesiones de la Junta Plenaria y de la Junta de Gobierno las normas establecidas en los artículos nº 50, 51 y 52 del Real Decreto Legislativo nº 781/1986, de 18 de Abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en Materia de Régimen Local, así como los preceptos contenidos en las Normas que lo desarrollen.

# VI. KAPITULUA.

## BALIABIDE EKONOMIKOAK

**22. ARTIKULUA.- BALIABIDE EKONOMIKOAK.-**

Mankomunitatearen Ogasuna ondoko baliabideek eratuko dute:

a) Zuzenbide pribatuko diru sarrerak.

b) Subentzioak eta zuzenbide publikoko beste diru sarrera batzuek.

c) Tasak eta prezio publikoak bere eskumeneko zerbitzuen prestazioarengatik edo jarduerak egiteagatik, dagozkien Zerga Arautegietan zehazten diren moduan ezarri edo erabaki ahal izango direnak.

d) Mankomunitateko eskumen diren obrak egin edo zerbitzuak ezarri, hedatu edo hobetzeko kontribuzio bereziak.

e) Mankomunitatean sartutako udalerrietako udalen kuotak edo ekarpenak.

f) Beren Gobernu Organoek horniketak edo obrak egiteko erabakitzen dituzten kredituzko eragiketen emaitzak eta antzekoak.

g) Isun eta zehapenen emaitza Mankomunitatearen eskumenen esparruan.

h) Bere alde ezartzen diren itundutako eta itundu gabeko tributuetako partaidetzak.

# CAPITULO VI

## RECURSOS ECONOMICOS

**ARTICULO 22º.- RECURSOS ECONOMICOS.-**

La Hacienda de la Mancomunidad estará constituida por los siguientes recursos:

a) Ingresos de derecho privado.

b) Las subvenciones y otros ingresos de derecho público.

c) Tasas y precios públicos por la prestación de servicios o realización de actividades de su competencia, los cuales se podrán imponerse o acordarse en la forma que se determine en las correspondientes Ordenanzas Fiscales.

d) Contribuciones especiales para la ejecución de obras o establecimiento, ampliación o mejora de servicios competencia de la Mancomunidad.

e) Cuotas o aportaciones de los Ayuntamientos de los municipios integrados en la Mancomunidad.

f) El producto de las operaciones de crédito y otros análogos que acuerden sus Órganos de Gobierno para la realización de suministros u obras.

g) El producto de multas y sanciones en el ámbito de las competencias de la Mancomunidad.

h) Participaciones en tributos concertados y no concertados que se establezcan a su favor.

i) Zuzenbide Publikoko gainerako prestazioak edo legez atera litekeen beste edozein diru sarrera.

j) Edonola ere, Tokiko Ogasunak araupetzen dituen abenduaren 28ko 3/1998 Legea, Bizkaiko Tokiko Ogasunen gaineko 5/1998 Foru Araua, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuen gaineko 2/1991 Foru Araua, edo horien ordez edo osagarri atera litezkeen Lege edo Foru Arauak aplikatuko dira, eta horietan xedatutakoaren mende egongo dira.

i) Demás prestaciones de Derecho Público o cualquier otro ingreso que legalmente pueda obtenerse.

j) En todo caso, será de aplicación y se estará a lo dispuesto en la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, Reguladora de las Haciendas Locales; de la Norma Foral 5/1989, de Hacienda Locales de Bizkaia; y de la Norma foral 2/1991, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, o de las Leyes y Normas Forales que pudieran suplirlas o complementarlas.

**23.- ARTIKULUA.- HASIERAKO EKARPENA.-**

Hasierako ekarpen bat ezartzen da, Mankomunitatera udalerri berriak sartzearen ondoriozko gastuei aurre egiteko.

Mankomunitatera sartu nahi duen udalerriaren hasierako ekarpena Osoko Bilkurak zehaztuko du, Mankomunitatearen zerbitzuen eta ondarearen kosteari eta udalerri horrek harpidetzen dituen zerbitzuei begiratuta.

**ARTICULO 23º.- APORTACIÓN INICIAL**

Se establece una Aportación Inicial, para atender a los gastos derivados de la incorporación de nuevos Municipios a la mancomunidad.

La Aportación Inicial del Municipio que pretenda incorporarse a la Mancomunidad, se determinará por la Junta Plenaria en atención al coste de los servicios y patrimonio de la Mancomunidad, asi como a los servicios a los que se adscriba dicho Municipio.

**24.- ARTIKULUA.- OHIKO EKARPENAK ETA EZ-OHIKO EKARPENAK.-**

1.- Mankomunatutako udalerri bakoitzaren Ohiko Ekarpenak ezartzea erabakitzen diren zerbitzuen entretenimenduko eta ustiapeneko gastuei aurre egiteko bideratzen direnak dira, eta Mankomunitatearen Osoko Bilkurak urtero finkatuko ditu, ondoko parametro hauei begiratuta:

- Elkartasuneko koefizientea - guztirako kostearen %25.
- Eskubidezko biztanleria - guztirako kostearen %75.
- Zerbitzu zehatz batzuen erabiltzaile kopurua.
- Zerbitzuaren erabilpenaren portzentajea – kasu batzuetan kosteen %100eraino.

2.- Ez-ohiko ekarpenak Mankomunitateko udalerriek lehenengo ezarpenaren, zerbitzu berriak abian jartzearen, instalazioak hedatzearen eta, izatekotan, kredituzko eragiketen urteko

**ARTICULO 24º.- APORTACIONES ORDINARIAS Y APORTACIONES EXTRAORDINARIAS**

1.- Las Aportaciones Ordinarias de cada uno de los Municipios mancomunados son las destinadas a atender los gastos de entretenimiento y explotación de los servicios que se acuerden establecer, y serán fijadas anualmente mediante Acuerdo de la Junta Plenaria de la Mancomunidad, atendiendo a los siguientes parámetros:

- Coeficiente de solidaridad - 25% del coste total.
- Población de derecho - 75% del coste total.
- Número de usuarios de determinados servicios.
- Porcentaje de utilización del Servicio – en algunos casos hasta un 100% de los costes.

2.- Las Aportaciones Extraordinarias serán las efectuadas por los municipios de la Mancomunidad para llevar a cabo los gastos de primer establecimiento, de puesta en marcha de nuevos servicios, los

interesak amortizatzeko behar diren gastuak burutzeko jartzen dituztenak dira.

Ekarpen hauek arestiko puntuak ezartzen duenaren arabera Ohiko Ekarpenetarako finkatu diren moduluekin bat etorriz egingo dira.

de ampliación de instalaciones, así como los necesarios para satisfacer la amortización de intereses anuales de las operaciones de crédito, en su caso.

Estas aportaciones serán realizadas de conformidad con los módulos que para las Aportaciones Ordinarias se hayan fijado según establece el punto anterior.

**25.- ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEARI EKARPENAK ORDAINTZEAREN BERMEAK.**

1.- Udalek kuotak eta ekarpenak Mankomunitateko Osoko Bilkurak zehazten dituen moduan eta epeetan ordainduko dituzte.

2.- Edonola ere, Udalen kuota eta ekarpenak nahitaezko gastu lehenetsitzat joko dira, ondore guztietarako.

3.- Mankomunitateko Lehendakariak, ordainketa egiteko ezarritako epea agortu eta udal batek zorra ordaindu ez badu, Bizkaiko Foru Ogasunari ordaintzeke dauden kuotak atxikitzeko eskatu ahal izango dio, Udal zordunaren alde edozein kontzeptu ez-finalistarengatik likidatutako kopuruetara egotzita, hori guztia martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauaren 19. artikuluarekin edo horren ordezko edo osagarri izan litezkeen Xedapenekin bat etorriz.

Horretarako, kasu bakoitzean zorpekoaren arauzko Egiaztagiriarekin batera, zorra dagoelako aski frogatzen duen gainerako dokumentazioa ere aurkeztuko da.

4.- Era berean, eta mankomunatutako udalerrien ekarpenen ordainketa bermatzeko asmoz, Mankomunitateko Lehendakariak udal aurrekontuak inpugnatu ahal izango ditu, aurrekontu horietan Mankomunitateari egin beharreko ekarpenen diru sailik aurreikusi ez bada.

5.- Mankomunitatearen Aurrekontua udalena baino geroago onesten bada, eta udalek esleitutakoak baino ekarpen handiagoak aurreikusten baditu, gehiagoko hori hurrengo ekitaldian ordainduko da.

**ARTICULO 25º.- GARANTIAS EN EL ABONO A LA MANCOMUNIDAD DE LAS APORTACIONES**

1. El pago de las cuotas y aportaciones de los Ayuntamientos se realizará en la forma y plazos que determine la Junta Plenaria de la Mancomunidad.

2. En cualquier caso, las cuotas y aportaciones de los Ayuntamientos tendrán a todos los efectos la consideración de pagos obligatorios y de carácter preferente.

3. El Presidente de la Mancomunidad, una vez transcurrido el plazo establecido para efectuar el abono sin que por un Municipio se haya hecho efectivo el débito, podrá solicitar de la Hacienda Foral de Bizkaia la retención de las cuotas pendientes con cargo a las cantidades que por cualquier concepto no finalista fueron liquidadas a favor del Ayuntamiento deudor, todo ello de conformidad con el artículo 19º de la Norma Foral 3/1995, de 30 de marzo, o de las Disposiciones que pudieran suplirla o complementarla.

A tal efecto, deberá acompañarse con la Certificación de descubierto reglamentaria en cada caso, cuanta otra documentación acredite suficientemente la existencia del débito.

4.- Asimismo, y con el propósito de garantizar el abono de las aportaciones de los Municipios mancomunados, el Presidente de la Mancomunidad podrá impugnar los Presupuestos municipales, cuando en estos no estuviera prevista la Partida correspondiente a las aportaciones a efectuar a la Mancomunidad.

5.- Si el Presupuesto de la Mancomunidad se aprueba con posterioridad y prevé aportaciones superiores a las consignadas por los Ayuntamientos, el exceso se abonará en el Ejercicio siguiente.

## VII. KAPITULUA

### LANGILERIA

**26. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEKO LANGILERIA, ARAUKETA ETA ITUN APLIKAGARRIA.**

1.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK eratzen deneko eginkizunak eta zerbitzuak betetzeko behar diren langileak edukiko ditu.

2.- Mankomunitateko langileei Tokiko Administrazioko Funtzionarioak eta Lan Kontratupeko Langileak araupetzen dituzten xedapenak aplikatuko zaizkie eta, nagusiki, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak partzialki aldarazitako Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legean xedatutakoa; edo horien ordezko edo osagarri izan litezkeen Lege edo Foru Xedapenak.

3.- Mankomunitateko langileei Euskadiko Foru eta Toki Administrazioetako Funtzionarioak eta Lan Kontratupeko Langileak arautzen dituen Lan Ituna aplikatuko zaie.

## CAPITULO VII

### DEL PERSONAL

**ARTICULO 26º.- DEL PERSONAL DE LA MANCOMUNIDAD, REGULACIÓN Y CONVENIO APLICABLE.-**

1.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA contará con el personal necesario para la realización de las tareas y desempeño de los servicios para los que se constituye.

2.- Al personal de la Mancomunidad le será de aplicación las disposiciones por las que se rigen los Funcionarios y el Personal Laboral de la Administración Local, y principalmente por lo dispuesto en la Ley 6/1989, de 6 de Julio, de la Función Pública Vasca, modificada parcialmente por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre; o por la Ley o Disposición Foral que pudiera suplirlas o complementarlas.

3.- Al personal de la Mancomunidad le será de aplicación el Convenio Laboral por el que se rigen los Funcionarios y el Personal Laboral de la Administración Foral y Local de Euskadi.

## VIII. KAPITULUA

### INDARRALDIA, ESTATUTUEN ALDARAZPENA ETA MANKOMUNITATEA DESEGITEA.

**27. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEAREN INDARRALDIA**

1.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, eratzea eragin duten xedeen izaera iraunkorra kontuan izanik,mugarik gabeko denborarako eratzen da, behin behineko desegitearen kalterik gabe.

2.- Mankomunitatea osatzen duten udalerriek sartzen direnetik gutxienez bost (5) urte egon beharko dute bertan.

## CAPITULO VIII

### DEL PLAZO DE VIGENCIA, DE LA MODIFICACION DE LOS ESTATUTOS Y DE LA DISOLUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD.

**ARTICULO 27º.- VIGENCIA DE LA MANCOMUNIDAD**

1.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA se constituye por tiempo indefinido, habida cuenta del carácter permanente de los fines que han motivado su constitución, sin perjuicio de su eventual disolución.

2.- Los municipios integrantes de la Mancomunidad deberán permanecer en ésta durante un período mínimo de cinco (5) años desde la fecha de su incorporación.

**28.- ARTIKULUA.- ESTATUTUEN ALDARAZPENA.**

Estatutu hauek martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauaren 27. artikuluan, edo horren ordezko edo osagarri izan litekeen Foru Xedapenean aurreikusitako prozeduraren arabera aldaraziko dira. Hona hemen prozeduraren izapide zehatzak:

1.- Lehendakariak berak, zein gutxienez Batzar Orokorreko edo Osoko Bilkurako kideen herenak eskatuta Estatutuen aldarazpenerako proposamena aurkeztea.

2.- Aurretiaz mankomunatutako udalik gehienek aldarazpena behin betiko onetsiko dute, eta horretako mankomunatutako udal bakoitza osatzen duten kideen legezko kopuruaren erabateko gehiengoaren baiezko botoa behar da. Ondoren jendaurreko informazioko 30 eguneko epea zabalduko da eta, epea agortzean, Estatutuen aldarazpenaren proposamena Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenaren mende jarriko da, epe berdinean.

30 egun igaro eta txostenik egin ez bada, baiezkotzat joko da.

3.- Horrela onetsitako Estatutuen aldarazpena oso-osorik argitaratuko da "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" eta Bizkaiko Tokiko Erakundeen Foru Erregistroan inskribatuko da, legez ezarritako beste toki batzuetan argitaratu eta inskribatzearen kalterik gabe.

**ARTICULO 28º.- MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS**

La modificación de los presentes Estatutos deberá realizarse de conformidad al procedimiento previsto en el artículo 27º de la Norma Foral 3/1995, de 30 de marzo, o Disposición Foral que pudiere suplirla o complementarla, y que se concreta en los siguientes trámites:

1.- Propuesta de modificación de los Estatutos realizada por el Presidente, o a petición de, al menos, una tercera parte de la Asamblea General o de la Junta Plenaria.

2.- Previa aprobación definitiva de la modificación por la mayoría de los Ayuntamientos mancomunados, requiriendo el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros que integran cada Ayuntamiento mancomunado, se abrirá un periodo de información pública por plazo de 30 días, transcurrido el cual, la propuesta de modificación de los Estatutos será sometida a Informe de la Diputación Foral de Bizkaia, por idéntico plazo.

Transcurrido otros 30 días sin haberse emitido el Informe, éste se estimará favorable.

3.- La modificación de los Estatutos así aprobada se publicará íntegramente en el "Boletín Oficial de Bizkaia" y se inscribirá en el Registro Foral de Entidades Locales de Bizkaia, sin perjuicio de su publicación e inscripción en otros establecidos legalmente.

**29.- ARTIKULUA.- MANKOMUNITATEA DESEGITEA**

Hara noiz edo nola desegingo den Mankomunitatea:

1.- Edozergatik, eratu zeneko xedea edo xedeak etorkizunean betetzerik ez balego.

2.- Legezko xedapen batez.

**ARTICULO 29º.- DISOLUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD**

La disolución de la Mancomunidad tendrá lugar:

1.- Cuando por cualquier circunstancia no pudiera cumplirse en el futuro el fin o fines para los que se constituyó.

2.- Por disposición legal.

3.- Mankomunitatearen Batzar Orokorrak, Osoko Bilkurak eta mankomunatutako udalik gehienek mankomunitateko kideen edo udal kideen legezko kopuruaren erabateko gehiengoz hartutako erabakien bitartez hala xedatzen dutenean.

3.- Cuando así lo acuerden la Asamblea General, la Junta Plenaria de la Mancomunidad y la mayoría de los Ayuntamientos mancomunados, mediante Acuerdo adoptados por mayoría absoluta del número legal de Vocales o de Corporativos en su caso.

**30. ARTIKULUA.- DESEGITEKO PROZEDURA.**

1.- Osoko Bilkurak Mankomunitatea desegiteko eskariaren Erabakiak jaso eta biharamunean zenbatzen hasiko den hogeita hamar (30) eguneko epean Batzorde Likidatzailea izendatu beharko du.

2.- Batzorde Likidatzaile horrek hainbat Erabaki hartu beharko ditu, besteak beste, ondoko xedapenak aurreikusiko dituztenak:

a) Mankomunitatearen zorrak eta beretutako betebeharrak ordaintzera bideratuko diren bere ondasun eta eskubideak.

b) Behin arestiko atalak aipatzen dituen eragiketak eginda, geratzen den kreditu positibo edo negatiboa Mankomunitatea osatzen duten udalerrien artean banatuko da.

c) Mankomunitatearen langileei dagokien legezko egoera.

d) Mankomunitatearen Artxibategiaren eta gainerako dokumentazio eta materialen xedea.

3.- Arestiko lerroaldeetan aurreikusitakoaren kalterik gabe, martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauaren 28. eta 29. artikuluetan edo bere ordezko edo osagarri izan litekeen Foru Xedapenean horren gainean xedatutakoaren mende egongo da.

**ARTICULO 30º.- PROCEDIMIENTO PARA LA DISOLUCIÓN.-**

1.- La Junta Plenaria en el plazo de treinta (30) días , a contar del día siguiente a la recepción de los Acuerdos solicitando la disolución de la Mancomunidad, deberá nombrar una Comisión Liquidadora.

2.- Dicha Comisión Liquidadora deberá adoptar una serie de Acuerdos, entre los cuales se deberán contemplar como mínimo las siguientes disposiciones:

a) Los bienes y derechos de la Mancomunidad que se afectarán al pago de las deudas y obligaciones contraídas por la misma.

b) Una vez realizadas las operaciones a que se refiere el apartado anterior, el crédito positivo o negativo resultante será distribuido entre los Municipios integrantes de la Mancomunidad.

c) Situación legal que corresponda al personal de la Mancomunidad.

d) Destino del Archivo y demás documentación y materiales de la Mancomunidad.

3. Sin perjuicio de lo previsto en los párrafos anteriores, se estará a lo dispuesto al efecto en los artículos 28º y 29º de la Norma Foral 3/1995, de 30 de marzo, o Disposición Foral que pudiera suplirla o complementarla.

# IX. KAPITULUA

## UDALAK MANKOMUNITATERA ATXIKITZEA ETA MANKOMUNITATETIK BEREIZTEA

**31. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATERA ATXIKITZEA**

1.- Udalerri berri bat mankomunitatera atxikitzeko, ondoko hau behar da:

a) Interesatutako udalbatzak eskatzea, aurretiaz bere osoko bilkuran erabateko gehiengoz erabakita.

b) Mankomunitatearen Osoko Bilkurak erabateko gehiengoz onestea. Sartzeko erabakian atxikimendurako finkatu diren baldintza orokor eta bereziak islatuko dira, hala nola, Mankomunitatean sartzearen ondorioz sortutako gastuak ordaintzea, edo udal horrek egin beharreko hasierako ekarpen ekonomikoaren zenbatekoa zehaztea.

Edonola ere, Udalerri bakoitzeko ordezkariek botoa emateko duten eskubidea ordezkatzen dituzten udalerriak mankomunatuta daudeneko obren eta zerbitzuen gaineko gaietan soilik gauzatuko dute.

2.- Atxikimendua mankomunitatearen xede baterako, batzuetarako edo guztietarako egin ahal izango da, betiere obrek eta zerbitzuek elkarrekiko loturarik ez badute.

**32. ARTIKULUA.- MANKOMUNITATETIK BORONDATEZ BEREIZTEA.**

Mankomunitatearen barruko edozein udalerrik bere borondatez bereizi nahi badu, ondoko hauek dira egin beharreko urratsak:

a) Interesatutako Udalbatzak bere kideen legezko kopuruaren gehiengoz erabakitzea.

b) Interesatutako udalerria mankomunitaterako bere ekarpenen ordainketan egunean egotea, eta

# CAPITULO IX

## ADHESION Y SEPARACIÓN DE MUNICIPIOS DE LA MANCOMUNIDAD

**ARTICULO 31º.- ADHESIÓN A LA MANCOMUNIDAD**

1. Para la incorporación a la Mancomunidad de un nuevo Municipio será necesario:

a) Que lo solicite la Corporación interesada, previo acuerdo adoptado por mayoría absoluta en el Pleno de la misma.

b) La aprobación de la Junta Plenaria de la Mancomunidad por mayoría absoluta. En el acuerdo de incorporación deberán reflejarse las condiciones generales y particulares que se hubieran fijado para la adhesión, tales como el abono de los gastos originados como consecuencia de su inclusión en la Mancomunidad o la determinación de la aportación económica inicial por la incorporación.

En todo caso, el derecho al voto de los representantes de cada Municipio sólo podrá ser ejercido en relación a aquellas obras y servicios en los que se hallen mancomunados los Municipios a los que representan.

2. La adhesión podrá realizarse para una, varias o todas las finalidades de la Mancomunidad, siempre que las obras o servicios sean independientes entre sí.

**ARTICULO 32º.- SEPARACIÓN VOLUNTARIA DE LA MANCOMUNIDAD**

Para la separación voluntaria de la Mancomunidad de cualquiera de los Municipios que la integran, será necesario:

a) Que lo acuerde el Pleno de la Corporación interesada con el voto favorable de la mayoría del número legal de sus miembros.

b) Que el Municipio interesado se halle al corriente en el pago de sus aportaciones a la mancomunidad y haya

mankomunitatean egoteko estatutuetan ezarritako arauzko gutxieneko denbora igaro izana.

c) Bereiztearen ondorioz sortzen diren gastu guztiak berak ordaintzea, baita mankomunitateak bere kargura beretutako pasiboaren bere zatia ere.

d) Mankomunitatearen Osoko Bilkurak, interesatutako udalerriaren edo udalerrien ordezkaria edo ordezkariak kenduta, erabateko gehiengoz bereiztea onestea. Bereizketaren erabakian bereizketaren baldintzak adieraziko dira.

transcurrido el período mínimo de pertenencia a la misma estatutariamente establecido.

c).- Que abone todos los gastos que se originen con motivo de la separación, así como la parte del pasivo contraído por la Mancomunidad de su cargo.

d).- La aprobación de la separación por mayoría absoluta de la Junta Plenaria de la Mancomunidad, exceptuando aquel o aquellos representantes del Municipio o Municipios interesados. En el Acuerdo de separación adoptado se señalarán las condiciones de la misma.

**33. ARTIKULUA.- BEREIZTEAREN ONDOREAK.**

1.- Udalerri bat edo gehiago bereizteak ez du mankomunitatearen likidaziorik egin beharrik ekarriko, izapide hori etenda gera litekeelarik mankomunitatea desegiten den egunera arte, eta desegiten den egunean bereizitako udalerri horiek Mankomunitatearen ondasunen likidazioan dagokien kuotaren zatian parte hartzera sartuko dira.

2.- Hala ere, direneko ingurumariak ikusita, bereizitako udalerriei beren partaidetzaren ordainketa osoa edo zati bat aurreratu ahal izango zaie, elementuak edo beren erabilpen esklusiborako ezarritako instalazioak beraiei esleituz.

**ARTICULO 33º.- EFECTOS DE LA SEPARACIÓN**

1. La separación de uno o varios municipios no obligará a practicar la liquidación de la Mancomunidad, pudiendo quedar dicho trámite en suspenso hasta el día de la disolución de la misma, fecha en la que aquellos municipios entrarán a participar en la parte alícuota que les corresponda en la liquidación de los bienes de la Mancomunidad.

2. No obstante, a la vista de las circunstancias concurrentes, se podrá anticipar total o parcialmente el pago de su participación a los municipios separados, adjudicándoles aquellos elementos o instalaciones establecidos para el servicio exclusivo de los mismos.

**34. ARTIKULUA.- NAHITAEZ BEREIZTEA**

Estatutu hauek Mankomunitatearen Osoko Bilkura espresuki ahalmentzen dute, bere iritziz mankomunatutako udalerriren batek Legeetan edo Estatutuetan ezarritako betebeharren ez-betetze larririk, edo behin berrizkorik egin badu, Udalerri hori Mankomunitatetik bereiztea erabakitzeko, kideen bi herenen baiezko botoen bidez erabakita.

**ARTICULO 34º.- SEPARACIÓN OBLIGATORIA**

Estos Estatutos facultan expresamente a la Junta Plenaria de la Mancomunidad para que, cuando a juicio de la misma, algún Municipio mancomunado haya incumplido grave y reiteradamente las obligaciones establecidas en las Leyes o en los Estatutos, ésta pueda acordar la separación de dicho Municipio de la Mancomunidad mediante acuerdo favorable de los dos tercios de sus componentes.

**35. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA.**

Udalerrien atxikitzearen edo bereiztearen erabakia "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da, eta Bizkaiko Tokiko Erakundeen Foru Erregistroan inskribatuko da, legez ezarritako beste toki batzuetan argitaratu eta inskribatzearen kalterik gabe.

**ARTICULO 35º.- PUBLICIDAD**

El acuerdo de adhesión o separación de Municipios, deberá publicarse en el "Boletín Oficial de Bizkaia", y remitirse al Registro Foral de Entidades Locales de Bizkaia para su inscripción. Todo ello sin perjuicio de su inscripción en cuantos otros Registros se hallen legalmente establecidos.

**36. ARTIKULUA.- FORMAZKO ONDOREAK**

1.- Udalerrien atxikitze edo bereizteak ez du, nahitaez, Mankomunitatearen Estatutuak aldaraztea ekarriko, estatutuetan ezarritako Gobernu Organoen ordezkaritzarako eta finantzaketarako irizpideak aldatu ezean.

2.- Udalerri bat edo batzuek sartu edo bereizteak, mankomunitateko Osoko Bilkurako kideei dagokienez, kideen kopurua berregituratzea besterik ez du ekarriko, sartu edo irten den udalerriaren ordezkariei dagokien gehitze edo gutxitzearekin.

3.- Horretarako, sartzea gertatzen den kasuan, Osoko Bilkurak emandako onespenaren erabakiak atxikitako udalerriari edo udalerriei Osoko Bilkuran dagokien eta Estatutu hauen 7-2. artikuluan araupetutako banaketarako erabili diren irizpide berberekin ezarriko den kideen kopurua zehaztuko du.

**ARTICULO 36º.- EFECTOS FORMALES**

1.- La incorporación o separación de Municipios no implicará necesariamente la modificación de los Estatutos de la Mancomunidad, salvo que se alteren los criterios de representación en los Órganos de Gobierno y de financiación estatutariamente establecidos.

2.- La incorporación o la separación de uno o varios Municipios , en relación a los Vocales miembros de la Junta Plenaria de la Mancomunidad, sólo supondrá la reestructuración del número de Vocales, con la reducción o ampliación correspondiente a los representantes del Municipio entrante o saliente, en su caso.

3.- A tal efecto, en el caso de la incorporación, el acuerdo de aprobación otorgado por la Junta Plenaria, concretará el número de Vocales en la Junta Plenaria que les corresponden al o a los municipios adheridos, y que se establecerá con los mismos criterios utilizados para la distribución regulada en el artículo 7º-2 de los presente Estatutos.

**<u>ALDI BATERAKO XEDAPEN BAKARRA</u>**

Estatutu hauen 3-2. artikuluan xedatutakoari dagokionez, UBIDEKO udalak ez ditu ondoko zerbitzuak mankomunatuta eskainiko:

-- Kale argiztapenaren mantentzea eta egokitzea.
-- Enplegua eta Prestakuntza (Lanbide Hastapenerako Ikastegia).

Hala ere, Udalerri hori, egoki irizten dionean, mankomunatutako aurreko zerbitzuei atxiki ahal izango zaie, Estatutuetan ezarritako prozedurari jarraituz.

**<u>DISPOSICIÓN TRANSITORIA UNICA</u>**

En relación con lo dispuesto en el artículo 3º-2 de los presentes Estatutos, el Ayuntamiento de UBIDE no prestará mancomunadamente los siguientes servicios:

--Mantenimiento y Adecuación del Alumbrado Público
--Empleo y Formación (Centro de Iniciación Profesional)

No obstante, dicho Municipio podrá adherirse a los anteriores servicios mancomunados cuando así lo considere oportuno, siguiendo el procedimiento establecido en los Estatutos.

## AMAIERAKO XEDAPENAK

**LEHENENGOA:** Estatutu hauek indarrean jarriko dira "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratu eta biharamunean, eta ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK berak arautegien bidez garatu ahal izango ditu.

**BIGARRENA:** ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN Estatutuen testua "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratu ondoren, Estatutu hauetako III. KAPITULUA aplikatzetik salbuetsita geratuko da.

Estatutu hauetako III. KAPITULUA 2003an izango diren Udal Hauteskundeen ondoren jarriko da indarrean.

Bien bitartean, 1998ko uztailaren 1eko Estatutuetako III. KAPITULUAN aurreikusitakoari begiratuko zaio eta horixe aplikatuko da.

**HIRUGARRENA:** Estatutu hauetan, edo Mankomunitatetik sortutako Araudi zein Arautegietan aurreikusten ez diren kontuetan, Bizkaiko Batzar Nagusiek 1995eko martxoaren 3oean onetsitako Bizkaiko Udalaz Gaindiko Esparruko Erakundeak Araupetzen dituen 3/1995 Foru Arauan (BAO, 73. zk., 1995-04-18), edo horren ordezko edo osagarri izan litekeen Foru xedapenean eta, oro har, Tokiko Araubideko legediak ezarritakoa aplikatuko da.

IGORREN, 2003KO OTSAILAREN 22AN

## DISPOSICIONES FINALES

**PRIMERA:** Los presentes Estatutos entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia", pudiendo ser desarrollados reglamentariamente por la propia ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

**SEGUNDA.-** Tras la publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia" del texto de los Estatutos de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, queda exceptuado de aplicación el CAPITULO III de los presentes Estatutos.

La entrada en vigor del CAPITULO III de los presentes Estatutos se producirá tras la Elecciones Municipales que se celebrarán en el año 2003.

Mientras tanto, se estará a lo dispuesto y será de aplicación lo previsto en el CAPITULO III de los Estatutos de 1 de Julio de 1988

**TERCERA:** En lo no previsto por los presentes Estatutos, o por las Ordenanzas y Reglamentos emanados de la Mancomunidad, resultará de aplicación lo establecido en la Norma Foral 3/1995 de 30 de Marzo, Reguladora de las Entidades de Ambito Supramunicipal de Bizkaia, aprobada con fecha 30 de marzo de 1995 por las Juntas Generales de Bizkaia (B.O.B. nº 73, de 18-04-1995); o aquella otra Disposición Foral que pudiere suplirla o complementarla, y con carácter general, por la legislación del Régimen Local.

EN IGORRE A 22 DE FEBRERO DE 2003